



SARRERA

Barandiaran institutoko 5 ikasle gara, Joane, Nahia, Asier, Mireya eta Noa. Startinnovako proiektuaren partehartzaileak gara. Horretarako, ideia berritzaile bat bilatu dugu, ikasleen eguneroko bizitzarekin lotuta egongo dena.

Gure proiektua kolorez aldatzen den tapoia duen ur-botila bat diseinatzea da. Tapoia gorri dagoenean, ura edan behar dela adierazten du; hori dagoenean, pixka bat edatea komeni dela; eta berde dagoenean, hidratazio-maila egokia dela erakusten du. Botila honen helburua ikasleei ura edateko ohitura hobeak hartzen laguntzea da, modu erraz eta bisual batean.

Proiektu hau egitea erabaki dugu, gure inguruan ikusi dugulako ikasle askok ez dutela nahikoa ur edaten egunean zehar, eta askotan ahaztu egiten zaiela. Ura edatea oso garrantzitsua da osasunerako, kontzentraziorako eta errendimendu akademikorako. Horregatik, gure ustez, botila hau lagungarria izan daiteke ohitura osasungarriak sustatzeko eta ikasleen ongizatea hobetzeko.